



BIZIKLETAK AUTOBUSE TAN GARRAIATZEA (2022ko ekainean eguneratua)

Zamategia duten hiriarteko autobus gehienek onartzen dute bizikleta ekipaje gisa garraiatzea, eta gomendagarria da bizikletak sartzeko poltsa batean edo paketatuta, behintzat, eramatea.

Batzuetan, gehigarri bat kobratzen dute bizikleta garraiatzeagatik. Hortaz, abiatu aurretik hobe da galdetzea aukeratu duzun konpainiari.

Lurraldebus eta Euskotren

Gure lurraldean diharduten Gipuzkoako Foru Aldundiaren (Lurraldebus) eta Euskotrenen hiriarteko autobus-lineetan, bizikleta bat eraman daiteke doan pertsonako, baldintza hauekin:

- Autobusak zamategia badu, bizikleta bertan eraman behar da, nahitaez, zorro baten barruan.
- Bizikleta kabinan eraman ahal izango da, soilik, sartzen den unean autobusean zutik dauden pertsonen kopurua baimendutako gehieneko kopuruaren % 60 baino handiagoa ez denean.
- Bizikletek ez dute lehentasunik autobusera sartzeko unean gurgil-aulkian dauden pertsonen eta haurren aulkien aldean, eta ezin dira kabinan sartu gurgil-aulkiren bat edo haurren aulkiren bat dagoenean.
- Ezin dira aldi berean bi bizikleta baino gehiago garraiatu.

Bizikletak erdiko atetik igo behar dira, eta gurgil-aulkiak, haurren aulkia eta bizikletak garraiatzeko plataforman kokatu behar dira.

Geltoki bat baino gehiago dituzten herrietan, bidaiariak hartzeko herriguneko azken geralekuan sartuko dira bizikleta arruntak.
para tomar viajeros.

Baimenduta dago autobus guztien barruan bizikleta tolesgarriak garraiatzea, erabat tolestuta. Jabeek eutsiko diete bizikletei, eta ezingo dituzte oztopatu autobusaren sarrerak eta irteerak, igarotzeko guneak eta erreserbatutako espazioak.



Bizikleta daraman pertsona izango da bizikleta horrek pertsoneri edo ondasunei eragin diezaiekeen edozein kalteren erantzule, salbu eta eragindako kaltean zerbitzuaren enpresa operadorearen erantzukizuna frogatzen bada.

Haurren bizikleten kasuan, autobusera pertsona heldu bat eta adingabe bat sartzen badira, biak bizikletak daramatzatela, biak hartuko dira bizikletatzat. Baina helduak bizikletarik ez badu, eta adingabearen bizikleta txikia bada, fardeltzat hartuko da (jostailutzat).

<https://www.lurraldebus.eus>

900 300 340

Lurraldebus@lurraldebus.eus



Hiriko autobusak

Donostiako DBUS konpainia. Hiriaren goi aldeetara doazen lineetan, bizikleta doan eraman daiteke zenbait ordu tartetan

Maldan gora hasi aurretiko geraleku hurbilenean bakarrik eskaintzen da aukera hori. Autobusera bizikletarekin igotzea onartzen dela adierazteko, geralekuak identifikazioko bereizgarri bat du markesinen goiko aldean; bereizgarri horretan, aukera hori eskaintzen duten lineen zenbakiak azaltzen dira.

Autobus bakoitzean bi bizikleta onartzen dira gehienez; edozein eratarata, gurpil-aulkiek eta haur-kotxeek lehentasuna izango dute beti.

Horregatik, ezin da autobusera bizikletarekin igo, autobusak gurpil-aulki edo haur-kotxeren bat badarama.

Bizikletak onartzen diren geraleku batean jende asko baldin badago zain, bizikletarik gabeko bidaiariak lehentasuna izango dute bizikletadunen aurrean.

Bizikletak erdiko atetik igo behar dira, eta gurpil-aulkiak, haurren aulkiak eta bizikletak garraiatzeko plataforman kokatu behar dira.

Bizikleta daraman pertsonak autobusean jarritako segurtasun-uhalak erabiliz lotu behar du bizikleta, eta ondoan jarri.

Tolestuta dauden bizikletak autobusaren aurreko atetik sartuko dira, edozein geraleku eta lineatan, betiere autobusean lekua badago.

DBUS

<https://www.dbus.eus/dbus-en-mugitzea/nola-bidaiatu-autobusean/>



Hiriko gainontzeko autobus-lineetan

Hiriko gainontzeko autobus-lineetan bizikletak sartzeko baldintzak esteka honen bidez kontsulta daitezke:

<https://www.mugi.eus/index.php/eu/erabiltzaileen-arreta/erregelamendua-eta-baldintza-orokorrak>